

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko martxoaren 18a. VIII. urtea. 2.195. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



I. GARCIA

→ **Colorin eta bere lagunak gerturatu dira Topic-era.** Bihar Txotxongiloaren Nazioarteko Eguna izango da, eta hori dela eta, hainbat ekitaldi izango dira Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroan. Goizean haurrentzako txotxongilo tailerra izango da, eta arratsaldean, egun berezi honen harira prestatutako mezuaren irakurketaren ondotik, Colorin txotxongiloaren inguruan prestatutako erakusketa zabalduko dute. Erakusketan Colorin eta bere istorioetako panpinak izango dira, baita pertsonaiaren egileen argazkiak eta materiala, eta abar luze bat ere. ◊ 3

Zuhaitzaren eguna dela eta, Tolosako berdeguneak ezagutzeko parada izango da, bihar

‘Tolosa Berdez’ri jarraituz bisita gidatua egingo dute 11:00etatik aurrera, eta Zumalakarregi kalean zuhaitzak landatuko dituzte ◊ 2

Lesio baten ondorioz, Berria Txapelketako finalerditik kanpo geratu daiteke Jaka

Amezketako Zazpi Iturriko Erik Jakak orkatila bihurritu du, eta gaurko entrenamenduan ikusiko du jokatzeko moduan dagoen ala ez; finalerdia etzi izango da Beotibarren ◊ 5

Martxoaren 27an izango da Villabonako Aizkardi Elkartearen 43. Ibilaldia

Bi ibilbide izango dira, luzea eta laburra; izena martxoaren 25a baino lehen edo egunean bertan eman behar da ◊ 4



sariduna



sarrerak



HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

LAGUN ARO GBC
DKV Juventud
saskibalo partida

◦ Onintza Lizarra (Ikaztegieta)
Martxoak 20 ◦ Igandea
12:30ean
Donostiako Ilunben



TXOKOR hitza

Sarrerak eskuratzeko HITZako bulegotik pasa



laz ere Zumalakarregi pasealekuan landatu zituzten zuhaitzak. HITZA

Berdeguniak hobeto ezagutzeko aukera izango da biharko Zuhaitz Egunean

Berdegunietako bisita gidatuz gain, zuhaitzen landatzean ere parte hartu ahal izango dute herritarrek

Itzea Urkizu

Herritar nahiz ikasleek Tolosako berdegunez gozatu ahal izango dute bihar, zuhaitzak landatzearekin batera; Tolosako Ingurumen Zentroaren eta Tolosako Udaleko Ingurumen sailaren eskutik, zuhaitzaren eguna ospatuko dute.

Herritarrei zuzenduriko ekitaldien artean, Tolosako berdegune-

etara bisita gidatua izango da. Hain zuzen ere, orain gutxi argitaratu duten *Tolosa Berdez* liburuxkari jarraituko diote, eta Zabalarreta parkeko uharkan hasiko da ibilbidea goizeko 11:00etan. Ordu betez ariko dira herriko hainbat berdegune bisitatzu, hala nola, Zabalarreta, Zumardi Haundia, Gernikako Arbolaren lorategiak eta Emeterio Arrese. Behin ibilbidearekin amaituta, Lizardi plazara joango dira, eta bertaratuek han burutuko den landaketa parte hartu ahal izango dute. Herriko lorategi nahiz berdeguneak azalpenez lagundurik bisitatu nahi dituen edonork, Tolosako Ingurumen Zentroarekin harremanetan jarri beharko du, 943 65 25 44 telefono zenbakira deituta.

Landaketa

Aurten, izako Zuhaitz Eguneko ekimenari jarraipena eman nahi izan diote, eta Zumalakarregi kalean zenbait zuhaitz landatuko dituzte bihar.

Joan den urtean, Zubi Berritik Lizardi plazarainoko zatian burutu zuten landaketa, eta aurtengogan, aldiz, Lizardi plazatik zezen plazaraino doan bidean izango da. Jada hamabost astigar arrunt landatu dituzte bide-zati horretan, eta bihar, *Magnolia Kobus*

aleak izango dira herritarrek eta udal ordezkariak landatuko dituztenak.

Modu honetara, Zumalakarregi kalean honako espezieak izango dira: keaki-ak, ginkgo-ak, altzifre arruntak, lizar hostodun astigarrek, katalpak, udare arboreak, aranondoak, sasiakaziak, jupiter zuhaitzak, hostazuriak, arteak, platano arruntak, lizarrak eta turkiar urritzak.

Ikasleentzako ekitaldiak

Zumalakarregi kalean egingo duten zuhaitzen landatzeaz gain, Tolosako ikastetxeetako ikasleek bestelako ekitaldiak izango dituzte ingurumenaren eta landarediaren harira.

Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleek ginkana izango dute, Zabalarreta parkean. Gero Berazubiko dikan zuhaixkak landatuko dituzte, eta ikasle bakoitzak landare bana jasoko du opari. 12:00etan, Lizardi plazako zuhaitzen landaketa-rekin jarraituko dute neska-mutilek ere.

Era berean, DBHko ikasle guztiek *Zuhaitza, ur erreserba eta CO2 xurgatzailea* izeneko lan-fitxa batzuk landuko dituzte asten zehar eskoletan, zuhaitz egunaren harira.

• tolosa@hitza.info

Vendettak lan berria aurkeztuko du Bonberenean

Inauterietako geldialdiaren ondoren, gaur eta bihar, 22:30ean izango dira kontzertuak

nez, berriz, Elorriotik iritsiko dira Bonbereneara, rock doinuak eskainiz. 1998an bakarlari gisa hasi zen Gustavo Calleja Yakuzi izena hartuta, eta gaur egun, laukote gisa aritzen dira oholztan.

I. Urkizu

Musikaz girotua dator asteburu hau ere Bonbereneara, eta hiru talde izango dira gurean, ostiralean zein larunbatean.

Gaur, 22:30etik aurrera, Borrokan eta Yakuzi taldeek kontzertu bana eskainiko dute Bonbereneako oholztan. Borrokan taldea 90. hamarkadan sortu zen, eta gaur egun boskote moduan lan egiten dute. 2002an kaleratu zuten beren lehen lan luzea, eta aipatu diskako zenbait abesti Bonberenean bertan grabatu zituzten. Zuzenekoie dagokienez, geldialditxo bat egin zuten arren, aspaldiko partez taula gainean dihardute azkenaldian. Yakuzi taldeari dagokio-

Vendettaren azken lana

Larunbatean, bestalde, Vendetta talde nafarrak bere azken lana aurkeztuko du Bonberenean: *Puro infierno*.

2009an sortu zen taldea, eta ska eta rocka oinarri dituzte, skinhead-reggae nahiz latin-hardcorea ere jarritzen dituztela. Beren lehen diskarekin urte beteko bira egin zuten; kantu ezagunen bertsioek eurek sorturiko abestiei lagundu zieten.

Puro infierno lanean erritimo bertsuekin jarraituko du talde nafarrak, eta testuei dagokienez, baikortasunez begiratuko diote, berrirori ere, munduari. Hau guztia ikusteko aukera izango da bihar, 22:30ean, Bonberenean.

• tolosa@hitza.info



Beren azken lana aurkeztuko dute bihar Vendetta taldekoek. HITZA

‘Crimen perfecto’ antzezlanak ikusgai izango da Leidorren

I. Urkizu


Alfred Hitchcock zuzendariak ezagun egin zuen *Crimen perfecto* antzezlanak izango da gaur iluntzean, 20:30ean, Leidor aretoan.

Txalo Produksioen eskutik, eta Jorge Sanz, Elena Furiase eta Pablo Puyol aktoreak taula gainean direla, Victor Conde zuzendariak 30, 40 eta 50. hamarkadetako zinemari omenaldi txiki bat egin nahi izan dio.

Obran zehar garrantzia berezia hartuko du, anztzerkirako Ana

Garayk eta Marc Alvarezek bereziki sorturiko musikak eta eszenografiak; suspentseareagotuko du.

Antzezlanean, Tony Wendice-k bere emaztea Margot hil nahiko du, honek duen diru guztia bereztat hartzeko. Hau lortze aldera, aspaldiko ezagun bati xantxia egingo dio Margot etxean bakarrik dagoenean bertara sartu, eta telefonoz ari dela emakumea ito dezan. Guztia gaizki aterako zaio, ordea.



Topic-ek Txotxongiloaren Nazioarteko Eguna ospatuko du

Bihar goizean tailerra egingo dute, eta arratsaldean 'Paperezko istorioak' ikusi ahal izango da

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroak, Topic-ek, hainbat ekitaldi antolatu ditu biharko, Txotxongiloaren Nazioarteko Egunaren harira. 11:00etatik iluntzera bitarte hortaz, Topic-eko txotxongiloak berpiztu egingo dira berriro irudimenari bidea irekitzeko.

Goizean haurrentzako txotxongilo tailerra izango da, eta

arratsaldean Julia Otxoa olerkariak egun berezi honetako testua irakurriko du. «Irudimenaren eta fantasiaren goi eskolaren aktore guztiak Topic-en bizi dira orain», eta euren istorioei esker «haur zein helduek poesiaren begietatik ikusten badugu bizitza magikoa izan daitekeela» ikusteko gonbita luzatuko du Otxoak.

Irakurketaren ondotik, Donostiako Behi Bis taldeak *Paperezko istorioak* ikuskizuna eskainiko du. Eta ondoren, Colorin eta bere txotxongiloak (1955-2004) ezagunaren inguruko erakusketa irekiko dute. Colorin Conchita Momeñe eta Jose Luis Villarejoren irudimenetik sortu zen, eta 50. hamarkadatik 80. hamarkada arte izan zen ezagun.



Colorin txotxongiloaren «etsaiak» ere erakusketan daude. I. GARCIA

↓ Egitaraua

BIHAR, LARUNBATA

■ **11:00.** Haurrentzako txotxongilo tailerra Topic-en
 ■ **18:00.** Txotxongiloaren Nazioarteko Eguneko mezua irakurriko du Julia Otxoa olerkariak. Ondoren, *Paperezko*

istoriak ikuskizuna eskainiko dute.

■ **19:15.** *Colorin eta bere txotxongiloak* izeneko aldi baterako erakusketaren irekiera.

■ **20:00.** Jaia Tolosako Nazioarteko Txotxongilo zentroko tabernan.

Mokadutxoa jateko aukera izango da bihar, 'KM 0' rekin

Bertako produktuak erosi eta prestatuko dituzte Zerkausian, gero herritarren artean banatzeko

I. Urkizu Tolosa

Tolosako larunbateroko azoka indartzea xede duen *Kilometro 0* ekimenaren bigarren saioa izango da bihar, Zerkausian.

Oraingoan, Astelena jatetxeko Pello Doyhartzabal sukaldaria jardungo da lanean, garaiko pro-

duktuak Zerkausian erosi eta herritarren aurrean prestatuko ditu. Horrela beraz, goizeko 11:30ak aldera herritarrei banatuko die bertako produktuekin sukaldaturiko jakia: saltsa berdean egindako urdaiazpikoz beteriko orri-mamiak prestatuko ditu. Bide beretik, urdaiazpikoa Bidegoiangon euskal txerriena izango da. *Kilometro 0* ekimena 2009an hasi zen Tolosan, Slow Food mugimenduari bat eginez, eta aipatu bezala, ekoizleari zuzenean erositako produktuak prestatzean datza. Apirilaren 16an izango da ekimenaren hirugarren saioa.

Ordenagailuez gain, kirola ere izango da Usabal kiroldegian

Erredakzioa Tolosa

Larunbatean, Usabaleko beheko kantxan infantil mutilen saskibaloia partida izango da. 09:00etan Take Ori taldeak, Zubiri Manteoren aurka jokatuko du. Jarraian, 10:30ean, eskola kirola izango da. Aretu futboleko partida jokatuko dute, kadete neskek. Katxa berdinean, 18:00etan, eskubaloia partida jokatuko du Tolosak, Zarautzen aurka.

Futbolari dagokionez, 09:00etan Tolosako infantil mutilen Danenaren aurka jokatuko dute. Ondoren, Tolosako infantil

neskek Urki taldearen aurka jokatuko dute. 11:45ean, Tolosako ohorezko infantilak Ordiziaren aurka ariko dira. 13:15ean, Tolosako infantil txikiak Hernaniren aurka jokatuko dute. Preferenteen aurka jokatuko dira Lagun Onak aurka ariko dira.

Beotibar pilotalekuan, berriz, 10:00etan GRAVN Txapelketako, 4 partida jokatuko dituzte Gipuzkoak eta Nafarroak.

Igandean, 12:00etan, beheko kantxan areto futboleko partida egongo da. Laskorain B taldeak Pinturas Gorkaren aurka jokatuko du.

Pasabanekek mendiaz eta bere bizitzaz hitz egiten du bere liburuan

Erredakzioa Tolosa

Edurme Pasabanekek atzo aurkeztu zuen *Hamalau aldiz zortzi mila* (*Catorce veces ocho mil*) liburu biografikoa. Liburua Josep Maria Pintoren laguntzarekin idatzi du, eta Planeta argitaletxeak argitaratu du.

Pasabanekek liburu idaztea edozein zortzimilako igotzea baino zailagoa izan dela adierazi du. Izan ere, liburu idazterakoan hainbat bizipen gogoratu behar izan ditu; baita oso gogorrak izan diren zenbait une ere.

Liburuan, batez ere, mendiaz hitz egiten duen arren, sentimendu pertsonalei buruz ere hitz egiten du mendigoizaleak.

14 zortzimilako igo ondoren, orain bi helburu ditu buruan Pasabanekek. Bata, Everest mendia oxigenorik gabe igotzea. Eta bestea, pertsonalagoa, familia bat osatzea.

Korrikako batzordeak igandean mendi martxa herrikoia egingo du

Erredakzioa Aduna

Korrika datorrela eta, Adunan Korrikako batzordea lanean hasia da. Hori dela eta, igandeko, mendi martxa herrikoia antolatu dute. 09:00etan plazatik abiatuko dira, eta bi ordu inguruko ibilaldi lasaia egingo dute. Antolatzailerik gosaria eta eguraldiaren arabera, arropa egokia eramatea komeni dela adierazi dute. 12 urtetik beherako gaztetxoek arduradunarekin joan beharko dute.

Jarraian, 12:00etan Korrika 17aren aldeko materialaren salmenta egingo dute udaletxeazpian (Kontsejuan).



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Mendizaleen gozamenerako prest dago Aizkardi Elkartearen 43. Ibilaldia

Hilaren 27an izango da eta ibilbide luzea edo laburra egiteko aukera dago; izena emateko epea zabalik dago

Enertiz Maiz Amasa-Villabona

Villabonako Aizkardi Mendizale Elkarteak 43. Aizkardi Ibilaldia antolatu du. Hilaren 27an izango da, eta ohiturari jarraituz bi ibilbide prestatu dituzte; luzeak 43 kilometro izango ditu eta motzak 24 kilometro. Ibilbide luzea, Euskal Herriko Iraupen Luzeako Ibilaldien Zirkuiturako ba-liagarria izango da.

Irteera, Villabonako elizaren ondotik egingo dute. Lehenengo, ibilaldi luzea egin behar dutenak aterako dira, eta ondoren, ibilbide motzekoak. Antolatzaileek argi adierazi dute, jan-edanak norberaren kontu izango direla, hauek gutxieneko hornidura jarriko dute. Ibilbideak plastikozko zintzen bidez markatuta egongo dira, eta parte-hartzaile guztientzat dutxa zerbitzua egongo da.

Antolakuntzak, bezperan bertan lo egin nahi dutenentzat, gela bat prestatuko du koltxonetekin. Baina zerbitzu hau erabili nahi dutenek, antolatzaileei telefonoz edo posta elektronikoki bidez jakinarazi beharko diete.

Izena, hilaren 25a bitartean, www.zirkuitua.com helbidean sartuta eman daiteke. Egunean bertan ere izena emateko aukera izango da. Aizkardi 43. Ibilaldian parte-hartzea doakoa da. Informazio gehiago nahi izanez gero, www.aizkardi.com helbidean, astelehenetik ostiralera



lazko ibilbidean, parte hartzaileak mendian barrena. HITZA

20:00etatik 22:00etara, 649 71 71 82 telefono zenbakira deituz, edo ibilaldia@aizkardi.com helbidera idatziz, eskuratu daiteke.

Izena ematerakoan, federazio-ko lizentzia zenbakia, EHNA edo NAN zenbakia, izen-abizenak, federatua ala federatu gabea den, mendiko taldearen izena eta ibilbide luzea edo motza egin behar duen zehaztu beharko dira. Parte-hartzaileek nahitaez ezarritako

kontroletatik pasa behar dute. Kontrol horietan, martxa-txartela erakutsi beharko dute. Bukatzeko, 17:30ean, mendiko materiala zozketatuko da proba amaitu duten eta bertan aurkitzen diren parte-hartzaileen artean.

Aizkardi Mendi Elkarteak ez du bere gain hartuko, parte-hartzaileei ibilbidean gertatutako istripuen, galdutako objektuen edo izandako min eta lesioen ardura.

↓ 43. Ibilaldia

HILAK 27, IGANDEA

■ **Luzea.** 43 kilometro ditu eta 2.400 metrotako desnibela. Irteera ordua 07:00etan izango da.

■ **Ibilbidea.** Villabona, Anoeta, Hernialde, Mendikute, Erniozabal (1.010 metro), Ubeltz, Ernio (1.075 metro), Zelatun, Gazume, Iturriotz, Altzuzelai, Pagoe-

ta (717 metro), Aia, San Pedro Auzoa, Peusgarate, Basopeta, Zizurkil eta Villabona.

■ **Laburra.** 24 kilometro ditu eta 1.100 metrotako desnibela. Irteera ordua 08:00etan izango da.

■ **Ibilbidea.** Villabona, Anoeta, Hernialde, Mendikute, Lizarbarra (835 metro), Atxutegi, Zopite (619 metro), Alkiza, Laumugarrieta eta Villabona.

Gaur da Asturiasera joateko irteeran izena emateko azken eguna

Apirilaren 9 eta 10ean joango dira Asturiasera. Herritar guztiei zuzendutako irteera antolatu du udalak

E. Maiz Asteasu

Asteasuko Udalak, Asturiasera irteera antolatu du apirilaren 9 eta 10erako. Herritar guztiei zuzendua dago irteera eta haurrek, gazteek eta helduek joateko aukera izango dute.

Irteera, 07:00etan izango da Asteasuko plazatik. Larunbatean, Cabezón de la Sal, Cangas de Onis, Covadonga eta Gijón bisitatu dira eta afaria sagardotegian izango da. Igandean berriz, Oviedo, Cudillero eta Luarca ezagutzeko aukera izango da.

Lo egiteko lekua Gijoneko hotel batean izango da eta gela bikoitzetan egingo da. Irteeraren kostua 100 euro izango da, eta izena emateko epea gaur bukatuko da. Hilaren 29an, 18:00etan bilera egingo dute, eta bidaiaren nondik norakoak azalduko dituzte.

Hilaren 29rako jubilatuen irteera antolatu dute Artziniegara

Egun osoko irteera izango da, eta Larraul, Alkiza, Zizurkil eta Adunako jubilatuek izango dute aukera

E. Maiz

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak jubilatuen irteera antolatu du Artziniegara. Hilaren 29an, asteartean, izango da. Goizez, Museo Etnografikoa eta Alde Zaharra bisitatuko dituzte. Bazkaria, Ruperto jatetxean egingo dute, eta arratsaldean Amurrioko likore museoa ikustera joango dira.

Irteera 28 euro ordaindu beharko da, eta izena emateko azken eguna, hilaren 21a, astelehena izango da. Joan nahi duenak, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko bulegoko telefonora deitu beharko du: 943 69 39 30.

Irteera egunean, herri bakoitzetik irteteko orduak hauek izango dira: Larrauldik 08:00etan aterako da, Alkizatik 08:15ean, Zizurkildik 08:30ean pasako da, eta Adunatik 08:45ean.

Afrikar dantzen ikastaroa, Asvinenean

Erredakzioa Aduna

Asvineneak Afrikar dantzen ikastaro trinkoa antolatu du apirilaren 2rako. Irakaslea Ainhoa Agirrezabala izango da, eta perkusioa zuzenean joko dute. Ordu-

tegia 16:30etik 19:00etara izango da. Ikastaroaren kostua 20 euro izango da, baina bazkideak direnek 15 euro ordaindu beharko dute. Izena www.asvinenea.com helbidean edo 665 738 081 telefonora deituz eman daiteke.

EUSKAL HERRIKO SAGARDO GORENAK
SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOA

GORENAK
EUSKAL HERRIKO SAGARDO GORENAK
SIDRAS SELECTOS DEL PIRINEO

HAIKUTZAN TITRA
(1. FEBRUAZ)

PROBAREN LOGO GURENAK
GAINDITU DEUTZELAKO

KALITATEA
PROFESIONALTASUNAN
NAGUSI DUTELAKO

HORREKIN DAREMATE
SAGARDOEN EUSKAL
SELEKZIOAREN
TXAPEL BELTZA

→ **Laburrak****Udal hauteskundeetarako zerrrendaren osaketa**

ALBIZTUR › Bigarren herri batzarra egingo dute gaur Albizturren, udal hauteskundeetarako zerrrenda osatzeko. Bilera 21:00etan hasiko da, udaletxeko areto nagusian. Lehenengo bilera ez zuen inork izena eman.

Batzorde bereziaren bilera egingo dute astelehenean

AMEZKETA › Hirigintza, Kultura, Ingurumena eta Ekonomia kontuen batzorde bereziaren bilera egingo dute, astelehenean, hilak 21, 20:30ean, udaletxeko pleno aretoan. Bertan, besteak beste, ondorengo gaiak eztabaidatuko dituzte: obra txikiak, Jauregi eremuko Plan Partziala, 2010. ekitaldiko likidazio ekonomikoa, udal ondasunen inventarioa berritzea eta kontu orokorrak, liburutegiko langileen ordezkapena, eta *Inkomunikazioarik ez! Torturarik ez!* mozioa.

Emakumearen Eguneko afaria eta sagardotegia

BEDAIO › Emakumearen Eguneko afaria egingo dute Bedaion hilaren 26an, Abaetxe jatetxean. Izena emateko epea hilaren 23an bukatuko da. Horrez gain, Bereziartua sagardotegian bazkaria antolatuko dute apirilaren 2rako. Honetarako izena emateko epea hilaren 30ean bukatuko da. Ekitaldi batera zein bestera joateko interesa duenak, 630 11 42 15 telefono zenbakira deitu behar du.

Alonso eta Esnaola, Udaberriko finalean, gaur

IKAZTEGIETA › Intxurre elkarte-ko Asier Alonsok eta Arkaitz Esnaolak Gipuzkoako Udaberri Txapelketaren finala jokatuko dute, gaur, Bergaran. Nagusien bigarren mailan jokatuko dute partida, Bergarako Rezustaren eta Iñarraren aurka. Jaialdia 19:00etan hasiko da, eta Alonsok eta Esnaolak bigarren partidari jokatuko dute. Txapelketa txukuna egin ondoren, txapela lortzen saiatuko dira gaurko finalean.

Emakumezkoen azken saioa 500 kilokoan

IBARRA › Arrigorriagako (Bizkaia) pilotalekuan jokatuko dute Ibarra taldeko emakumezkoen 500 kiloko txapelketaren hirugarren eta azken saioa. 18:00etan hasiko da jardunaldia, eta emakumeen txapelketaz gain, gizonezkoen 560 kiloko txapelketa jokatuko da. Txapelketa horretan ez du parte hartzen Ibarako taldeak. Emakumezkoen finalari dagozkionez, hiru dira parte hartuko dutenak: Ibarra, Badaiotz (Gasteiz) eta Sakana (Arbizu, Nafarroa).

Adania Aizkolari Sariaren finala, etzi, Amazabalen

LEITZA › Adania Aizkolari Sariaren finala jokatuko dute lau aizkolariak, Leitzako Amazabal frontoian, igandean 12:00etan. Aizkolari gazteentzako txapelketa da, eta bertan parte hartuko du Ruben Saralegi leitzarrak, 23 urte aspikoetan mailan. 18 urte azpikoetan eta 14 urte azpikoetan ere jokatuko da saria. Azken horretan, Mikel Zabaleta leitzarra ariko da.

Zazpi Iturriko Jakaren parte-hartzea zalantzan, Berria Txapelketan

Amezketako elkarteak Irurtzunen aurka jokatuko du, etzi Beotibarren, finalera pasatzeko asmoarekin

Imanol Garcia Amezketak

Zazpi Iturriko Erik Jaka jubenilaren egoerak eragina izango du, etzi, Tolosako Beotibar pilotalekuan, elkarrekin amezketarako jokatuko duen Berria Txapelketaren finalerdian, 17:00etan. Jakak orkatila bihurtu zuen astearen hasieran, eta ondo osatzen ari bada ere, gaur egingo duen entrenamenduan ikusiko da jokatzeke moduan izango den. Jakak ez badu jolasten, Gallurraldekin batera Erostarbe ariko da.

Irurtzunen aurka jokatuko du Zazpi Iturriko. Amezketako elkartearen aldetik kadeteetan ohiko bikotea aterako da: Altuna eta Irribarria. Irurtzuneneko Iruñeko Oberena elkarteak bikotearen aurka jokatuko dute: Espinal eta Goñi. Xalton Zabala Zazpi Iturriko arduradunak azaldu duenez, «partida erakargarria izango da, parekatua. Espinal eta Goñi ezagutzen ditugu, elkarren aurka jokatuko baitugu. Uste dut irabaziko dugula, baina partida gogorra izango da».

Jubenilen mailan, Jakak jokatuta ala ez eragina izango du partidari. Zabalak gogora ekarri du, Adiskideren aurka jokatuko zutenean, elkarrekin hartuko Elezkanok ez zuela parte hartu, eta Galdakako elkarteak nabaritu zuela baja hori. «Guri Jakarekin ere berdina



Galdakako final laurdena jokatuko duen Zazpi Iturriko taldea. ROSI CUEVAS

gertatu dakiguke: ez badu jokatzen, gazteen mailako partida irabaztea zailagoa izango da. Hala ere, jokatzen badu, ez da ehuneko ehunena ariko oraindik. Beraz, ez dago aurreikuspen handirik egiterik».

Gallurraldeko aurrean jokatuko du, eta atzean, Jakak edo Erostarbek. Aurkari, ziurrenik, Ijuria eta Melaza izango dituzte. «Ijuria bizi da, tantoa erreze egiten duena», dio Zabalak. «Batzuetan gehiegi arriskatzen du eta opariak egiten ditu. Gure pilotarietako ofizio gehiago dutela uste dut eta ea hori baliatzen dugun partida aurrera ateratzeko».

Olaetxearen debuta

Nagusietan Olaetxeak lehenengo aldiz parte hartuko du Berria Txapelketan. Zazpi Iturriko pilo-

taria lesionaturik egon da hilabete eta erdi, eta aukera handiak ditu jokatzeke. Berarekin batera Garmendia ariko da. Aurrean Armendariz eta Mariñalena izango dituzte.

Zabalak azaldu duenez, «Armendarizek kolpe handia du, baina aurreko koadroetan ez da hain ondo moldatzen. Olaetxea artista da aurrean, eta asmatzen badu aukerak izango ditugu partida irabazteko».

Irurtzungeok aurrelari hobetua dute, Ansotegi, baina Espainiako Txapelketa jokatzen ari da, eta ziurrenik ez du Berria Txapelketa parte hartuko. Ansotegik jokatuko balu, baliteke Olaetxearen ordez beste pilotari batek jokatzea. «kolpe handiagoko duen jokalaririk batek», Zabalak azaldu duenez.

Irudia Amasa-Villabona

XAXIREN URTEBETETZEA

Amasa-Villabonako Fleming eskolan Xaxi ipotxaren urtebetetzea ospatu dute. Haurrek abestiak eta olerkiak eskaini dizkie, eta marrazkiak oparitu. Xaxik bizkotxo eder bat eraman du. HITZA

Aberriaren 100. urteurrenaren aldarrikapena. Egun bereziki gogoratu eta 100. urteurrenaren aldarrikapena.

IREKI BIDEA EZKERRARI

aralar



Sei bertsolarik hartuko dute parte Leitzako bigarren finalurrekoan. HITZA

‘Luze’k finalerako txartela eskuratzeko aukera izanen du Leitzako saioan

Bigarren finalurreko Leitzako zinean izanen da, 17:30ean; bertan sei bertsolarik hartuko dute parte

Maier Ugartemendia Leizta

Leitzan jokatu du Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren finalurreko, eta bertan izanen da Miel Mari Elosegé, *Luze* leitzarra.

Saioa bihar izanen da, 17:30ean, herriko zinemari. Honako hau, bigarren finalurreko izanen da. Lehena hilaren 12an izan zen, eta azkena hilaren 26an izan zen da, Elizondon. Finala, berriz, apirilaren 9an izanen da, Iruñean. Finalurrekoan sei bertsolari ariko dira taula gainean: Estitxu Aroze-

na, Xabier Terreros, Inigo Olaetxea, Josu Sanjurjo, Ander Fuentes, *Iturri* eta Miel Mari Elosegé *Luze* leitzarra.

Kantatuko duten bertsolarien artean, Estitxu Arozena txapelketa hasi aurretik sailkatuta zegoen finalurrekoetarako, iaz aurreko egin baitzuen. Arozenak bitan irabazi du Nafarroako Txapelketa, 1995ean eta 1998an. Iazko txapelketako finalean ere kantatu zuen Xabier Terrerosék. Zazpigarren egin zuen. Tafallako azken laurdena irabazita sailkatu da. Bestetik, Josu Sanjurjo gazteak lehen aldiz du txapelketan, eta Berriozarren egindako lan onari esker lortu du finalurrekoetan egotea. *Luze* jada Nafarroako Txapelketako bi finalerako egon da. Leitzako finalurreko ira- bazten duen bertsolaria zuzenean sailkatutako da Iruñeko finale-

rako. Gainerakoek zain egon beharko dute finalurreko guztietako puntuazioak ezagutu arte, bost postu puntuz erabakiko baitira. Berako finalurreko irabazi ondoren, Jon Barberena jada finalerako sailkatuta dago.

Finalurrekoetarako sarrera zortzi eurokoa da. Bertsozale Elkarteko bazkideek eta 16 urtetik beherakoek bost euro ordaindu beharko dituzte. Sarrerak Leitzan bertan erostez gain, aldeztu aurretik erosi ahal izanen dira www.berriosarreak.eu atarian.

Nafarroako Bertsolari Txapelketako antolatzailea Nafarroako Bertsozale elkarte da. Hala ere, Leitzako saioa antolatzeko Leitzako Udalaren laguntza izan du.

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren informazio osoa eta eguneratua www.nafarroakotxapelketa.com web orrian dago.

Herritarrek egindako aldizkaria izanen dute laster Areson

Aldizkaria egiten eta osatzen lagundu nahi dutenek, hilaren 21ean egiten den bilerara joan beharko dute

M.U. Areso

Aresok aurtan bere aldizkaria izanen du. Aresoko Udalak eta Euskara Zerbitzuak proposatuta, aurtan aldizkari bat egiteko asmoa dute herritarrek. Areso eta aresoarrak izanen dira aldizkari-ko protagonistak. Horretarako,

lantaldetxo bat osatuko dute, lana denen artean banatuko dutelarik. Proiektu hau irekia izanen da, eta herritar guztiak parte hartzera gonbidatu nahi dituzte.

Aldizkaria egiten hasi ahal izateko, hilaren 21ean bilera bat egiten dute. Aldizkaria egiten eta osatzen lagundu nahi dutenek, bilera horretarako joan beharko dute 19:00etan. Bilera horretan adostuko dituzte, denen artean, aldizkariaren inguruko xehetasun guztiak. Beraz, laster aresoarrak, beste hainbat herritan bezala, herritik eta herriarentzat egindako aldizkaria izanen dute.

Praktika mentalari buruzko hitzaldia eta saio praktikoa, Leitzan

Zenbait egoeretan sortzen den ezinegonak konponbiderik ba ote duen argitzen saiatuko da Arozena, gaur

M.U. Leizta

Denok noizbait sentitu izan ditugun, urduritasunari, izuari edota blokeoari nola aurre egin azalduko du Urko Arozenak gaurko hitzaldian. Alke Leitzako Kultur taldeak antolatutako hitzaldiak *Geure burua ezagutu eta oreka lortu, posible ote?* izenburua du.

Hitzaldia entzun nahi dutenek, Aurrera elkartera joan beharko dute, 20:00etan. Praktika mentalari buruzko saioa izanen da honakoa, zati praktikoa bat ere izanen duelarik. Hitzaldian hain ohikoak diren urduritasuna, izua, edota blokeoa bezalako sentimenduek sortutako ezinegonak konponbiderik ba ote duten argitzen saiatuko dira. Arozenak azterketetan, bilera batean, erronka bati ekiterakoan, edo partida bat jokatzekoan tripako minik izaten duzun galdetzen du, eta ea honek konponbiderik ba ote duen. Erantzuna jakin nahi duenak saiora joan beharko du.

Orteurrena eta eskertza



VII. URTEMUGA

JUAN JOXE AMENABARRO ITURRIOZ

Inork agintzen ez didalako dut maite maite dudana.
Inork agintzen ez didalako ditut basamortua eta izariokak maite.
Itsasontzi noragabeak, gauerdiko biolinak
ilunabarren margoa, xorino hezurtoen higadura,
sagarondoetan eskeginiko bihotz horiak,
tristura handiegia zaien neska txak
eta zure irria, zure irria ere
inork agintzen ez didalako dut maite.

Beti maiteko zaitugu, atona

Esti, Estanis, Mari, Lander, Edurne, Haitz, Joxe

-Esker onak-



Juanita Etxabe Saizar

(Pedro Aldalurren alarguna)

Familiaren partetik, eskerrik asko doluminak eman eta momentu latz hauetan lagundu diguzuen guztiak.

ARATZ ERREKAN, 2011ko martxoaren 18an

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erabazteko izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Bakarrizketek emango diete hasiera Gazte Festei

Urepele elkarteak antolatatu ditu jaiek urtero bezala; bihar ere izango dira ekitaldiak Berastegin

Erredakzioa Berastegi

Gaur hasiko dira Berastegiko Gazte Festak eta bihar izango dute jarraipena. Urtero bezala, Urepele elkarteak antolatatu ditu jaiek.

Gazte Festak hasteko bakarrizketa saioa egingo dute eskolako gimnasioan gaur, 19:00etan. Hiru bakarrizketalariak berastegia-

↓ Egitaraua

GAUR

- **19:00.** Bakarrizketa saioa Xabi Barriola, Olatz Etxeberria eta Jone Gorostazuren eskutik eskolako gimnasioan.
- **21:00.** Kako jatetxean Gazte Festetako afaria.
- **00:30.** Ingo al deu? taldearen kontzertua Urepele elkartearen.

BIHAR

- **16:00.** Mus Txapelketaren finala Urepelen.
- **18:00.** Sagardo dastatzea. Ondoren, Toka Txapelketa egingo dute.
- **00:00.** Mendeku Itxua eta Laketen kontzertuak Urepele elkartearen.

rrak dira eta eskarmentu handi-koak: Xabi Barriola, Olatz Etxeberria eta Jone Gorostazu. Izan ere, hiruak Villabonako Euskarzko Bakarrizketa Lehiaketan

parte hartu izan dute, eta baita hainbat sari eskuratu ere. Bakarrizketen ondotik afaria eta kontzertua izango dira. Bihar ere izango dira ekitaldiak.



Mendeku Itxua taldeak bihar joko du Laket taldearekin batera. HITZA

tolosaldeko hitza . iragarkilaburrak . com

Asteazken arnabak 15.000ak arte jostak iragarriak soilik argitaratuko dira.
IRAGARKIAK JARTZEKO: www.tolosaldeko hitza iragarkilaburrak.com / 943-83 56 56 telefono zerbitzua

Higiezinak ETXEBILTZAK

SALDU

Ikastegieta. Ikastegieta etxe adosatu salgai. 658-70 80 66.

Irura. Zure lehen etxebizitzaren merke eta polita izateko aukera duzu: 60 m²

eta garbira. Interesatuak deitu: 653-72 02 46.

ERRENTAN EMAN

Villabona. Larrea azuzan etxebizitzak berria alkatetza da. Sakaldea, jargaila, egongela, gela bat, bainu-gela eta trasterlekua. 600 euro hilan. Garaje

Itxirekin nahiz zinez gero, 650 euro/hilan. 669-82 70 96.

ANONIMIA

OPORAK/BIKIAK

Uda honetan Irlandara. 8-10 egunetako bidaiak gidatutik enkanaz etateko txikietan benetako Irlanda

ezagutzeko. Mugikorra: 0044-78 62 21 74 14.

Lan/Inposatuak LANEGARIK

Tolosa. Alfontzak, bulagoak, etxak... garbitzeko prest. Deitu kongresorik gabeko 538-94 46 04 (Taratse).

Etxebila Higiezinak

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

ALOKATZEKO

MARTUTENE 2 logela, sukaltze, egongela, bainu-gela. Kanpota. 700€

AMARA ZAHARRA Apartamentu oso polita. Kanpota. 775€

AMARA ZAHARRA Oso ongi. 2 logela, egongela, sukaltze, bainu-gela. 900€

PARTE ZAHARRA Korraldeko plaza. Apartamentu oso. 710€

AMARA 3 logela, sukaltze, egongela, 2 bainu-gela. Sakaldea. 900€

BOZBETA 2 logela, sukaltze, egongela, bainu-gela. Beldosa. 700€

OROS 3 logearekin 2 logela, sukaltze, egongela, 2 bainu-gela. 970€

SALDAI

MARTUTENE 2 logela, sukaltze, egongela, bainu-gela. Beldosa. 700€

ERDIALDEA Urteko. Logela, sukaltze, egongela, bainu-gela. Beldosa. 43.500.000 pta.

AMARA Altea. Baserri berrin. 3 logela, sukaltze, egongela, bainu-gela. Terraza. 48.700.000 pta.

AMARA 3 logela, sukaltze, egongela, bainu-gela. Altea. Beldosa. 44.000.000 pta.

AMARA 3 logela, sukaltze, egongela, bainu-gela. Terraza. 48.500.000 pta.

AMARA Oso ongi. Logela, sukaltze, egongela, bainu-gela. Beldosa. 44.700.000 pta.

GROS Apartamentu oso polita. Logela-egongela-sukaltze, bainu-gela. 28.000.000 pta.

AHETE Oso ongi. 2 logela, 2 egongela, sukaltze, bainu-gela. Beldosa. 70.800.000 pta.

EGRA Karmango Andre Maria. Igozailua. 2 logela, sukaltze, bainu-gela. Beldosa. 41.800.000 pta.

ANTIGUA Berrin. 80 m². Altea. Terraza. Garajea, trasterlekua. Fofa.

ANTIGUA Mota. 2 logela, egongela, sukaltze, bainu-gela. Beldosa. Igozailua. 47.200.000 pta.

HERNANIA 3 logela, sukaltze, egongela, bainu-gela. Kanpota. Beldosa. 38.200.000 pta.

ALTEA 2 logela, egongela, sukaltze, bainu-gela. Trasterlekua. Igozailua. 24.500.000 pta.

ALTEA 100 m². 4 logela, sukaltze, egongela, 2 bainu-gela. 30 m²-ko terraza. 48.500.000 pta.

PASAI DONIBANE 2 logela, sukaltze, egongela, bainu-gela. Beldosa. 23.800.000 pta.

ERRENTERIA Erdian. 2 logela, sukaltze, egongela, bainu-gela. Terraza. 28.800.000 pta.

LEZO Etxe berrin. 2 eta 3 logelak. Terraza. Garajea. 280.000€-ko gero.

www.etxebila.net
Fofa eta etxeak - DONIBANEA

Leku huzurak iragarriaz gain dago

INMOKOSTA INMOBILIARIA

SALDU

GETARIA. Erdian. Zeharo eraberritua. 2 gela, sukaltze-sukaltze, bainu-gela, trasterlekua, beldosa. Dena karpota begira eta egokitua. **204.545 euro (34 milioi).**

ZARAUZ. ZIGORERA kalea. 2 logela, egongela, sukaltze, bainu-gela eta beldosa. **276.479 euro (46 milioi).**

ZARAUZ. VISTA ALEGRE. 3 gela, sukaltze, bainu-gela, saltoa. **211.450 euro (48,5 milioi).**

ZARAUZ. DUPILA. 2 gela, sukaltze-sukaltze, sukaltze, bainu-gela, saltoa. **309.660 euro (65 milioi).**

ZARAUZ. AIZTZAINDIE. 2 gela, sukaltze, sukaltze, bainu-gela, saltoa. **309.660 euro (65 milioi).**

ZARAUZ. ERDIALDEAN. 2 eta 3 logela, egongela, sukaltze, bainu-gela, saltoa, trasterlekua, beldosa. **204.545 euro (34 milioi).**

ZARAUZ. ERDIALDEAN. 100 m². 3 eta 4 logela, sukaltze, bainu-gela, saltoa. **309.660 euro (65 milioi).**

ORRI. ERDIALDEAN. 2 gela, sukaltze, bainu-gela, saltoa, trasterlekua, beldosa. Dena karpota begira eta egokitua. Garajea eta trasterlekua.

ORRI. Fandia bakoitako etxe oso ongi. 3 solairu. 150m² eta erdian. Lorategi eta terraza. Trasterlekua. Arazkariak gabea.

ZENDUA. 3 gela, saltoa, sukaltze, bainu-gela, beldosa. Trasterlekua. Igozailua. 108.300 euro

GARAJE SALTAMENA, MENDIAUTA, GARAJE ITXUA, LEKU BAT, ERDIAN, BIKOTZA.

943-83 55 18
www.inmokosta.com
Orape, 20 - behea • 20800 Zarautz

ARAMBURU Euzko administratzailea Higiezinaren bulegoak

943-65 17 13 / 664-37 25 60
www.aramburonet.net

SALDAI

- **Etxebizitza.** Amazabal kalean, Igozailuarekin, Leitzan, Nafarroa.
- **Lokala.** Foruen kalean, Tolosan.
- **Garaje Itxiak eta irekiak.** Tolosa, Barra eta Irutan.

ALOKATZEKO

- **Etxeak.** San Frantzisko kalean, Paper kalean, Hemeros kalean eta Agintari kalean, Tolosan.
- **Garajeak.** Larremendin, Tolosan.
- **Txokoak.** Tximinia, komuna, ohe bikoitza, ondezko ohea eta terraza, Baraibarren.
- **Lokala hurre azuzan,** Tolosan.

www.inmosalbide.com

SALBIDE Higiezinaren zerbitzuak

Ala. Etxe berrin. 3 logela, 2 bainu-gela eta 127 m²ko terraza. **48.500.000 pta.**

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onan. **28.500.000 pta.**

Bergara. San Lorenzo kalean. 67 m² etxebizitza 35 m²ko etxebizitza. Etxe berrin. Etxe berrin. Etxe berrin. **41.000.000 pta.**

Getaria. Herriko kalean. 3 logela eta 2 bainu-gelako etxebizitza. Trasterlekuekin. Egonea onan. **41.000.000 pta.**

Zarauz. Langako plaza (Salbidin). 2 logela eta bainu-gela bat. Guztiz berritua. **45.000.000 pta.**

Zarauz. Vista Alegre. 3 logela, bainu-gela eta azoa. Terraza handia hegoaldean. Bista ederak. **50.000.000 pta.**

Zarauz. Erdialdean. 2 logelako etxe erabat berritua. Igozailua eta gara. **51.500.000 pta.**

Zarauz. 4. pisua Igozailu gabe. 2 logela. Berritua berrin. **35.000.000 pta.**

Zendua. Erdialdean. Ibe bilakur berrin. 3 logelako etxebizitza. **31.000.000 pta.**

Beldosa kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef. 943-01 07 00 • Fax: 665- 71 85 96

zaldibia bada zortedunik

hirusta hirusta • hirusta

GC grupo eibar

3 logelako etxebizitza terraza eta trasterlekuekin 205.000 euroko berrin
2 logelako etxeak trasterlekuekin 100.000 euroko berrin

Higiezinaren zerbitzuak

lazkao HEMEN BIZI NAHI DU?

Toki Eder EDIFICIO • ERAKUNTZA

943 31 66 11
620 111 271
www.gnuposibat.com

3 logelako etxebizitza 180.000 euroko berrin
3 logelako etxebizitza 127.000 euroko berrin

BI ERDIAK, TERRAZA ETA TRASTERLEKUA GABE, BIKOTZA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Inauterietako Argazki Lehiaketa



GAUR BUKATUKO DA ARGAZKI LEHIAKETA

Inauterietako Argazki Lehiaketan parte hartu nahi duten harpidedunek gaur dute argazkia bidaltzeko azken eguna. argazkiak@tolosaldeko-hitza.info helbidera bidali behar dira, eta harpidedun kodea zehaztu behar

da. Harpidedun bakoitzak bi argazki bidali ditzake gehienez. Argazki guztiak www.tolosa.hitza.info webgunean, Nabarmenak sailean, daude ikusgai. Irabazlearen izena asteartean, hilak 22, argitaratuko du TOLO-

SALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK. Honek Tolosaldeko Denak tabernan lau lagunentzako afaria irabaziko du. Orain arte 21 argazki jaso ditugu. Zorte on parte-hartzaile guztiak! HITZA

Agenda

DEIALDIK

- **Areso.** Areso, Araitz, Betelu eta Lekunberriko Kirol Mankomunitateak Lekunberriko Legoa antolatuta du etzira, hilak 20. Lasterketa Lekunberri eta Larrun artean izango da eta 180 bat lagun espero dituzte. Haurrak 10:30ean hasiko dira eta helduak 12:00etan.
- **Leitza.** Oialde Elkarte gastronomikoan bazkide berriak sartzeko epea apirilaren 10ean bukatuko da. Izena emateko: 676 29 79 80 (Amaia).
- **Ibarra.** Txontxo udal ludotekak begiraleak behar ditu udarako. Eskara egiteko derrigorrezkoa da begirale titulua eta

EGA izatea. Ibartarrek lehentasuna izango dute. Curriculumak ibarra@kastola.net-era idali behar dira '2011ko begiraleak' gaia zehaztuz. Apirilaren 8a da eskaerak egiteko azken eguna.

- **Leaburu.** Gaur 20:30etik aurrera Zazpi Bide elkartearen Info7-aren aldeko bertso afaria izango da. Jokin Uranga eta Amets Arzallus izango dira bertsolariak. Bertso afaria Larte Azpi Kultur Ekintza elkarteak antolatuta du.
- **Berastegi.** Gaur hasiko dira Gazte Festak. 19:00etan bakarrizketa izango da Muñagorri eskolako gimnasioan. 21:00etan afaria izango da Kako jatetxean eta 00:30ean Ingo al deu? taldearen kontzertua. Bihar be-

rriz, 16:00etan Mus Txapelketaren finala izango da, 18:00etan sagardo dastatzea, Toka Txapelketa eta 00:00etan Mendeku Itxua eta Laket taldeak.

- **Tolosa.** Gipuzkoa Encounter jaialdia izango da gaurtik hasi eta igandera bitarte Usabalen.
- **Tolosa.** OHoeko lehenengo promozioiko 8. maila Jesusen Alaben ikastetxean egin zutenek (1974-1975) maiatzaren 14an ikaskideen bazkaria izango dute. Bazkaria Bide Bide jate-txean izango da eta izena apirilaren 30a baino lehen eman behar da eta 50 euro sartu 2101 0081 19 0012775102 kontuan. Informazio gehiagorako eta izena emateko: 649 16 30 53.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. zenbakia. 943 65 10 45.
- **Arribe.** Garmendia A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

BIHAR

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. zenbakia. 943 67 09 15.
- **Arribe.** Garmendia A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

ETZI

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Arribe.** Garmendia A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.